

BELDURREZKO ISTORIO BAT

Udazkeneko arratsalde horretan etxera joan nintzen. Ni, lagun batzuekin bizi nintzen hiritik bost kilometrotara, herri txiki eta bakarti batean. Normalean ni iristen nintzen lehenengoa etxera, horregatik lorategiko burdinezko atea beti itxita aurkitzen nuen. atea zerraila zaharra zuen. Etxebizitzako egurrezko atea ere nik zabaltzen nuen.

Egun horretan, ordea, kanpoko atea zabalik topatu nuen, baina ez nintzen beldurtu. Norbait ni baino lehenago iritsi zela edo haizeak ireki zuela pentsatu nuen, haizearena oso arraroa bazen ere.

Etxebizitzako atea irekitzerakoan leiho bateko kristala hautsita ikusi nuen. Kezkutzen hasi nintzen: "Ai ama". Etxean sartu nintzen ausardiaz. Zaratak entzun nituen. Etxean sartu nintzen ausardiaz. Zaratak entzun nituen: kaxoiak irekitzen eta ixten ari zen norbait. Eztul bat ere entzun nuen. Ai ene! A zer beldurra! Dardarka ari nintzen. Etxean norbait zegoen, nor izango ote zen? Bat-batean, nire gelako atea zabaldu zen danbada batez eta beltzez jantzitako pertsona bat ikusteko denbora izan nuen... Aaaaaaaaaaaaaa....!!!! Ez dut besterik gogoratzen... Konortea guztiz galdu nuen...



Erantzun ondorengo galderak:

1. Istorioko protagonista, gizona ala emakumea da?
 - a) Emakumea.
 - b) Gizona.
 - c) Ez dakigu, ez da esaten.

2. Noiz gertatu zen istorio hau?
 - a) Udazkeneko goiz batean.
 - b) Udazkeneko arratsalde batean.
 - c) Udaberriko arratsalde batea.

3. Norekin bizi zen gure protagonista?
 - a) Lagunekin.
 - b) Gurasoekin.
 - c) Aitite- amonarekin

4. Non bizi zen?
 - a) Herri handi batean.
 - b) Hirian bizi zen.
 - c) Herri txiki batean.

5. Hiritik zenbat kilometrora zegoen etxea?
 - a) Hiritik bi kilometrotara.
 - b) Hiritik bost kilometrotara.
 - c) Hiritik hamar kilometrotara.

6. Zerezkoa zen lorategiko atea? Eta etxebizitzakoa?

- a) Burdinezkoa zen.
- b) Egurrezkoa zen.
- c) Beirazkoa zen.

7. Nongo kristala zegoen hautsita?

- a) Leihoko kristala.
- b) Logelako kristala.
- c) Ateko kristala.

8. Zer entzuten zen etxe barruan?

- a) Musika.
- b) Isiltasuna.
- c) Zaratak.